



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarte.  
Francisco Michelena Celayeta.  
Ezekiel Loiarte Santesteban.  
José María Michelena Erasun.

2015eko uztailaren 2an, 20:00etan, aparteko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

## **2. BILEREN ALDIZKOTASUNA.**

Ohiko bilkurak egiteko aldizkotasunari buruz eztabaidatu da eta aho batez erabaki da bi hilabetetik egitea, hilabete bakoitietan, lehendabiziko hamabostaldian.

## **3. KOMISIOAK.**

Aipatzen diren gaietaz arduratuko diren zinegotziak izendatu dituzte aho batez:

Mendiak eta herrilantako langileak: Ezekiel Loiarte Santesteban.  
Francisco Michelena Celayetak lagunduko dio.

Hirigintza: Francisco Michelena Celayeta.

Kultura eta bestak: Leire Bazterrika Loiarte. José María Michelena Erasunek lagunduko dio.

Auzolanak: Francisco Michelena Celayeta eta Ezekiel Loiarte Santesteban.

Alkateak adierazi du gai bakoitzarentzat izendatu dela zinegotzi arduradun bat, eta zinegotzi horrek izango duela lana egiteko askatasuna. Dena den, taldeko lana egitea da helburu nagusia.

## **4. ORDEZKAPENAK.**

Ondoren, Zubietako Udala ordezkaturako duten zinegotziak izendatu dira aho batez:

Malerrekako Mankomunitatea:



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.  
Ordezkoa: Leire Bazterrika Loiarte.

Goi ur-hornidura kudeatzeko Erakunde Autonomoa (Malerrekako Mankomunitatea):

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.  
Ordezkoa: Francisco Michelena Celayeta.

Cederna-Garalur, Malerrekako Agenda 21 eta Baztan-Bidasoa Eskualdean turismoaren garapena:

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.  
Ordezkoa: José María Michelena Erasun.

## **5. ALKATEORDEZKOA.**

Alkateak emandako ebazpen honen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko ekainaren 15ekoa, Imanol Baleztena Elizalde alkateordekotzat izendatu zuena.

## **6. ALKATE ETA ZINEGOTZEIN ORDAINSARIAK.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen 21/2014 Foru Legearen 7. artikulua kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. Alkatearendako urtean 7.933 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: Herriko Etxera joateagatik eta osoko bilkuretan, organo kolegiatuen bilkuretan eta bileretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

2. Zinegotziendako urtean 1.586 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

3. Zenbateko horiek eguneratuz joango dira, Nafarroako Gobernuak Udaleko kideen gastuetarako ematen duen diru-laguntza handitu ahalean.

4. Orobat, beren karguan aritzean dieta eta joan-etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie Udalbatzako kideei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoan.

5. Erabaki honek atzera eragina izanen du, 2015eko ekainaren 13tik aitzina.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki-taulan argitaratzea.

## **7. MENDIKO LANAK.**

2015eko ekainaren 8ko Osoko Bilkuran hartutako erabakia, espedientean dauden agiriak eta gonbidatuak izan ziren 3 enprekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “2015eko KANPAINAN ZUBIETAKO U.B. BASO LANEN PROIEKTUA” izeneko agirian dauden lanak esleitzea EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL enpresari, B 31 738131 IFK, hogeit mila bost ehun eta hogeita sei euro eta hamaika zentimotan (20.526,11 €), gehi BEZa. Lanak, 19 eguneko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita.

2. Kontratoa sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. M.M.O. izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

## **8. AURREKONTU-ALDAKETA.**

2015eko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketa egiteko 1 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea kreditu aldaketa egiteko espedienteari.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

## **9. ZENBAIT ESKAERA.**

1. C.U.S.k idazkia aurkeztu zuen, jakinaraziz *Herriko Ostatuan* zenbait gauza utzi dituela Udalarentzat: lorontzi bat, 3 aulki, 2 besaulki, 2 mahai biribilak, telebista bat eta gortinak. Taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratua Á.O.G.en izenean dago gaur egun eta gauza haiek Ostatuan geratzeko konforme dago O. andrea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da dohaintza onartzea eta inbentarioan sartzea, Udalaren jabetza bezala. O. andreak sinatu beharko du inbentario berria.

Bestalde, gortinak egiten materiala eta denbora eman duela kontutan hartuz, urte osoko auzolantzat hartzea eskatzen du. Aho batez onetsi da eskatutakoa.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

2. I.G.E.k idazkia aurkeztu zuen *Maestraren etxeko* argindarrari buruz: kontagailu bakarra dago etxe osorako eta sotoa Udalak erabiltzen du biltegi bezala eta noizbait ere plazako musikariei argia emateko. Beraz, berak ordaintzen du sotoko argia eta horren truke auzolanak egin behar ez izatea eskatzen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- *Maestraren etxeko* sotoko argi lerroa bereiztea, etxebizitzako kontagailutik kanpo geratzeko.
- Urte erdiko argia G. jaunak ordaindu duela kontutan hartuz, auzolan bat eta erdi apuntatzea.

## **10. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko maiatzaren 18koa, 2015eko aurrekontua aldatzeko ez ohiko kreditu espedienteari hasiera eman ziona; 2015eko maiatzaren 18koa, erabaki zuena *Maestraren etxeko* errentamendua hartzeko jarritako fidantza itzultzea M.S.i; 2015eko ekainaren 5koa, J.M.ri lizentzia eman ziona *Joanamaria etxeko* teilatua eta balkoia birmoldatzeko; 2015eko ekainaren 11koa, P.S.i lizentzia eman ziona egurtegi irekia eraikitzeko 2 poligonoko 292 partzelan dagoen bordari atxikia; 2015eko ekainaren 11koa, erabaki zuena oihan-aprobetxamendua ateratzeko jarritako fidantza itzultzea M.L.ri; 2015eko ekainaren 11koa, J.L.ri lizentzia eman ziona *Fermiñenea baserriko* fatxadak pintatzeko eta komuna eraikitzeko; 2015eko ekainaren 11koa, P.T.ri lizentzia eman ziona leihoa handitzeko 1 poligonoko 111 partzelan dagoen bordari; 2015eko ekainaren 11koa, P.T.ri lizentzia eman ziona harrizko pareta eraikitzeko *Borralda baserriaren* atzealdean; 2015eko ekainaren 14koa, Iberdrola Renovables Energía SAri lizentzia eman ziona zentraleko kanalean konponketa lan txikiak egiteko; 2015eko ekainaren 15koa, I.B. alkateordezkotzat izendatu zuena.

## **11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Idazkariak langileen kontratazio hauen berri eman du: Nafarroako Enplegu Zerbitzuko laguntzarekin, langile 1 lau hilabeterako; Errotan, langile 1 hiru hilabeterako.

2. Gizarteratze-errenta jasotzen duen pertsona bat kontratatzeko diru-laguntza eskatu dela aipatu du idazkariak (Zuzeneko Enplegu Aktiboaren deialdia).

3. NUKF eta La Caixak ematen duten diru-laguntza eskatuko da ere, hiri eremuak berreskuratzeko.

4. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Errotarako eskatu diren diru-laguntzak (funtzionamendu eta inbertsiorako); Chocarro eta Urmeneta arkitektoen



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)  
31746

txostena, 4 poligonoko 137 partzelan eraikitzen ari den etxebizitzari buruz; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak bidalitako idatzia amorruren aurkako txertoari buruz; Baztan-Bidasoa eskualdean turismoa garatzeko lankidetzaren hitzarmena; sutarako egur loteen errekonozimendu-akta; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak — L.M. (3) eta J.L.S.enak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak — J.P., F.J., I.G., S.I., L.M. eta A.E.ri—; Malerrekako Mankomunitateak egin duen DVDA; mozketa-plangintza egiteko eskaera.

5. *Sorginzelaieta* parajearen markatu behar diren egur loteak etxean entregatzeko aurrekontuak eskatu ziren eta eskaintza bakarra aurkeztu da: *Maderas Santesteban SLk* eskaini du tonako 34 euro gehi BEZa kobratzea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da egur loteak atera eta entregatzeko lanak adjudikatzea *MADERAS SANTESTEBAN SL* enpresari, tonako 34 eurotan (gehi BEZa).

6. Francisco Michelenak aipatu du mendizainarekin adostu behar duela datorren urtean erre daitezken larreak.

7. Auzolana antolatuko da uztailaren 11n.

8. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Mahaia jarriko da laister labaderoaren inguruan eta soka eta posteak inguru hartako kanalean.

- *Udalbiltza Partzuergoak* eskatu du kuota ordaintzea. Zubietako Udala *Udalbiltza Partzuergotik* kanpo geratzea eskatu da formalki, 2014ko urtarrilaren 16an Osoko Bilkurak erabaki zuen bezala.

- Cederna-Garalur Elkartearen egindako bilera, PDRari buruz.

9. S.I.M. baso-aprobetxamendua atera zuen, *Armizkoko pista* kaltetu zuen eta ez du behar bezala konpondu. Aho batez erabaki da bidea berehala konpontzeko agindua ematea I. jaunari.

10. José María Michelenak Euskara Batzordearen bileraren berri eman du. *Kultur Ibilbideei* buruz hitz egin zen bertan. Zubietan, *Euskararen Egunean*, urriak 10, egingen da, 525 euroko diru-laguntzarekin.

Eta bertzerik ezean, 22:10ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.